

## **ORDIZIA / Liburutegia ekintza ugariren aterpea izango da urrian**

Pello Añorgak hurrei ipuinak kontatzeko ikastaroa eskainiko du Ordizian. Hiru saiotan egingo du hori. Azaroaren 5ean, 8an eta 15ean egingo dituzte saio horiek. 5ean 17:00etatik 19:00etara. 8an eta 15ean, berriz, 17:00etatik 20:00etara. Izena Ordiziako udal liburutegian eman daiteke eta plazak mugatuak dira. Doako ikastaroa da. Norberak ipuin bat eraman ahalko du eta ikastaroan zehar ipuin hori kontatzeko laguntza jasoko du, hurrekin hobeto komunikatzen ikasteko.

Ez da hori liburutegian urrirako antolatu duen ekintza bakarra. Mertxe Aizpuruak ipuin kontaketa saioak eskainiko ditu lau egunetan: 10ean, 18an, 23an eta 31n. 17:30ean hasiko ditu kontaktak eta 4 eta 9 urte arteko umei zuzenduta egongo dira.

Azkenik, irakurketa tailerrak ere saio berriak egingo ditu, ekaina bitartean. 8 edo 9 saio izango dira guztira, eta helburuak, euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea eta irakurketa ohitura sustatzea dira. Hori lortzeko euskal literaturaren alde ludikoa indartuko dute tailerrean. Aldiko liburu bat irakurtzen dute, eta elkartzean, bakoitzak bere etxean irakurritakoa eztabaidatzen dute: literatur estiloa, akzioa, pertsonaiak... Taldearen hurrengo bilera azaroaren 8an izango da, 19:00etan. Irati Goikoetxeak gidatuko ditu saioak.